

BERRIGARA

71. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1992, uztailak 3

**JUSTO
GARATE
IKERKETA
BEKA
AURKEZTU
DU UDALAK**

**BERGARA
K.E.KO
ZUZENDARIEKIN
AZKEN
EGUNETAKO
GORABEHEREN
INGURUAN
BERRIKETAN**

KIROLAK

**EUSKADIKO
KIROL
ESKALADA
TXAPELKETA
JOKATUKO DA
LARUNBATEAN
BERGARAN**



10 urte zure zerbitzura!!

ESKEINTZA BEREZIAK


- ✓ Uztailak 31 arte:
Sapelyzko atea (31.500 + BEZ)
- ✓ Uztailak 15 arte:
Aritzezko ate moldeatua (44.000 + BEZ)

ARDATZA
brikolaketa

Mahasterreka 4
☎ 76 18 93 BERGARA

Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!



Sukalde eta bainugelarako mobleria
Diselnuia eta goimallako kallitatea
5 urteko garantia

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

PHILIPS



Teknologia eta diselnuia
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEkipoak
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzariak eta gazteentzakoak
Alfonbrak. lelho-oihal, narruzko sofak,
tapizak,...
apaingarriak

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

BERGARAKO BATXILERGO INSTITUTUA

- ✓ 91-92 urteko ikasketak gainditu dituzten ikasle guztiei gogora erazten zaie, Institututik pasa daitezkeela ekainaren 29tik uztailaren 10era arte, 92/93 ikasurteko matrikula egitera.
- ✓ Aurten institutuan matrikulatuta egon direnek eta bi irakasgai edo gutxiago gainditu gabe dutenak ere egin dezakete 92/93 ikasurteko matrikula epe berdinean.

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza
 Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Ifaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak: Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikufña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:
 B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:
 BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Loge gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

SAMARTZIALAK

Iganderako egon den mahaien eskaera handia dela eta (210 mahai inguru), Kultura Zerbitzuak mahaiak enkargatu dituztenei banaketa eguna aldatu dela jakin arazten die. Igandean banatu ordez, larunbatean goizeko 9etatik ordubetetara eta arratsaldeko 5etatik 7etara banatuko dira.



Mahaiak erabili ondoren garbitu eta bertan utziko dira, Udala Zerbitzuak astelehenean jaso ahal izateko.

Aulki banaketa, berriz, igande goizean egingo da eta hauek hartutako lekura itzuli beharko dira igande

arratsaldean bertan.

Dударik ez dago beraz aurten ere milaka bergarar bilduko garelako bergararrok hain maite dugun San Martzilen omenezko festa handi honetan.

Ondo pasa!!

Enkargatutako mahaiak larunbatean banatuko

ITURRI ONETIK

Hispano-Centralek sukurtsal bakarra Bergaran

Hispano-Americano eta Central bankuak juridikoki bat eginda badaude ere, bategite fisikoa ez dute oraindik egin. Bergaran, irail aldera edo, Centralaren sukurtsala itxi egingo da berriztapen lanak egiteko eta behin-behinerako Hispanora pasatuko da. Lanak amaitu bezain laster, Fraiskozurin jarriko da sukurtsal berria eta Bidekurutzetako betirako itxi egingo da.

ESAN DUTE

"Prentsan agertzea inportantea da, baina badago hori axola ez zaion pintorerik.

Batzuetan horrela izan beharko luke, beste batzuetan ordea ez, ez dakit. Askotan, egiten duzun lana lehiaketa bat irabazi ondoren ezagutzen da bakarrik, eta egia esan ez dago sariketarik gabe zure obrak ezagutzera emateko bide askorik".

KUTXU OTAMENDI pintorea ARGIA

"Demokrazia itxura bat eman nahi da, baina Bergarako Udala herritarren borondatek urrun dago, 17

zinegotzitatik 9k aurrera eramaten dituztelako gaiak. Hau ez da demokrazia partehartzailea, baizik eta fazista, besteen eritziak ez direlako kontuan hartzen".

AITOR AGINAGALDE HBko zinegotzi ohia EGIN

SOLANA

- Materialen errekupeazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA
 Tfnoa: Biltegikoa: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

Udal Gobernuak aposturik ez

Ekainaren 5eko "Berrigara" aldizkarian Hezkuntza eta Euskara Batzordeko lehendakari den Koldo Pereirak ni aipatzen ninduen eta baita zenbait kritika egin ere. Bere ustez Udal Bilkuran nik zera adierazi omen nuen: "Bergarako Udal Gobernuak ez zuela Hezkuntza arloa behar bezala bultzatzen". Eta, bere iritziz, ordea, "Ezin daiteke adierazi Udal Gobernu taldeak Hezkuntza arloan ez duela apostu garbirik egiten". Eta, honen froga gisa, Hezkuntza arloko 77 milioitako partida goratzen du.

Gauzak honela, nik orduan eta orain adierazi nahi nuena hauxe da:

1.- Nik ez dut sekula esan Udal Gobernuak ez duenik Hezkuntza arloan ezer egiten, behar bezala bultzatzen ez duela baizik, eta Koldo Pereira bat etorriko da nirekin Hezkuntza arloan ez dela inoiz gehiegi egiten pentsatzerakoan.

2.- 77 milioi asko edo gutxi diren erabakitzeke beste partidekin gonbaratu behar dira. Esate baterako, Unzeta-Ruiz de la Prada parkea 60 milioi kostatuko zaigu aurten (gutzira 103 milioi); Udaletxea berriztea 90 milioi aurten; Udal-Merkatua 131 milioi aurten, etab, etab. Beraz, eraberritze lanetan 281 milioi aurten bakarrik. Hau

da, ia Hezkuntza baino lau bider gehiago.

3.- Eraberritze lan horiek komenigarri izan daitezke behar bada, baina benetan behar-beharrezko al dira gaurregun bizi dugun krisialdian?. Ez ote litzateke hobe geroxeagorako utzi edo epe luzeagoetan egin eta beste zenbait inbertsio egin, Hezkuntza esate baterako?.

4.- Are gehiago, nik ez nuen Udal Bilkuran Hezkuntza bakarrik aipatu. Esan bezala eraberritze lanetan 281 milioi gastatzen ari garen bitartean, Industrialdeetan 14 milioi besterik ez eta etxe babetuetan 5 milioi baino ez.

5.- Azkenik, Koldo Pereirak sinestarazi nahi digu Hezkuntza arloan apostu garbia egiten ari dela Udal Gobernuak. Baina, ez digu esaten aurten 77 milioitako partida hori 62 milioi izan zela iaz, eta azken batean aurretik datorren partidari jarraitu besterik ez duela egiten.

Beraz, esanak esan, uste dut, benebenetan, Udal Gobernuak ez diola Hezkuntzari batere lehentasunik ematen eta, aposturik behintzat ez dela inon ere somatzen.

Kontxi Irizar

Zorionak Euskal Bizikletakoei

"Euskal Bizikleta" Bergaran izan dugu

bi egunez eta, esan beharra dago, jokaera ezin hobea eduki dute euskarari dagokionez, bai helmugan egin zen sari banaketan eta baita hurrengo eguneko etaparen hasieran, beraz, Zorionak Euskal Bizikletaren antolatzaileei. Ateratako liburuxoa ere ia datorren urterako euskaraz azaltzen den.

JARDUN ELKARTEA

Eskerrik asko guztioi


"Ekainaren 18 eta 19an, Euskal Bizikletaren 2. etaparen helmuga eta 3aren irteera antolatzen lagundu zigiten guztiei eskerrak, naiz ekonomiko aldetik naiz bestelako edozer eginkizunetan lagundu zigutenei eta bereziki Udaltzaingoari eta Lanbide Heziketa Eskolari.

Lokatza Txirrindulari Elkarte

OHARRA:

Gutunak sailera bidaltzen diren eskutitzak 20-25 lerrotakoak baino txikiagoak behar dute izan eta bidaltzailearen izen-abizenak eman beharko dira. Hala ere, bidaltzaileari bere gutuna izen-orde batekin publikatzeko aukera emango zaio.

Tiira ba!



Josu Okina

Taberna BOTAk eta Eguzkik

BOTA talde antimilitaristak eta Eguzki talde ekolojistak eramango dute aurten Samartzialeko tabernaren ardura. Bi horiez gain, DYA, Lanbide Heziketako 4. mailakoak eta JARDUN Elkartek egin zuten berau hartzeko eskaera. Agindutako sortea egin eta gero, aipatutako biei tokatu zitzaizen igandean *lan egitea*. Irabazi asmorik ez duten kultura edo kirol elkarteek harrezaketan parte eta espero dugu BOTAk eta Eguzkik diru dextente ateratzea beren eginkizunak aurrera atera ahal izateko. Taberna goizeko 7etatik aurrera egongo da zabalik.

Milaka bergararrek ospatuko dute igandean Samartzial eguna

Aspaldiko ohiturari eutsiz, milaka eta milaka bergarar hurbilduko dira igandean Samartzialera, ermitaren inguruko zelaietan bergararrok hain maite dugun eguna ospatzeko.

Udalak San Pedro eta Samartzialak ospatzeko egitaraua prestatu du. Ostiralean, gaueko 10etan Orfeoiaren kontzertua egongo da Seminarioko elizan eta larunbatean, Euskadiko Kirol Eskaladaren txapelketa, arte martzialen erakusketa 7etan Plazan eta gauean dantzaldia Espoiloan Ibaiak taldearekin.

Igandean, goizeko 7 terdietan egingo da Samartzialera igoera letaniarekin, 9.15etan alborada, 10etan gurdi igoera, Meza Nagusia 11tan, Xamatzen emanaldia eta aureskua eguerdian,



ondoren bertsolariak eta arratsaldean euskal jokopak eta erromeria betan. Gaueko 9etan jeitsierari hasiera emango zaio eta 10.30etan Plazan erromeria izango da.

HBk bazkariari ez

Asteheneneko Plenoan jakitera eman zutenez, Herri Batasuneko zine-

gotziak ez dira Korporazioaren bazkarira azalduko, beren esanetan, *"herriaren gobernuan baztertuta gaudelako eta ez dugu batasunaren itxura eman nahi"*. Victoriano Gallastegi alkateak beraiek ere oposizioan egotea zer den badakitela eta horregatik ez dutela inoiz huts egin erantzun zien.

Jaiak Elgetan ere

Astebukaeran Elgetako jaiak aurrera egingo dute. Ostiral gauean gau-pasa iragarrita dago eta, larunbatean, besteak beste, sokamuturra, bazkari herrikoia, Herri Olinpiadak eta gauean Julio Kageta, Banana Boat eta Zakarrak taldeekin rock jaialdia izango dira. Igandean Azoka Nagusia egongo da Elgetan. Goizeko 9etan hasita, ganadu lehiaketa eta makineri eta burdinaki azokaren irekitzea egingo da. Arratsaldean trikitilarien txapelketa jokatu da eta gaueko erromeriaren ondoren sardinaren lurperatzeari ekingo zaio.



LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

ELEKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,

Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

□ **Eginera bisita**

Egin egunkariaren 15. urteurrena dela eta, herri guztietatik bertako erredakzioa eta tailerrak ikusteko bisitak antolatzen ari dira. Bergararik datorren asteazkenean, hilak 8, arratsaldeko 7 t'erdietan autobusa aterako da Hernanira joateko. Bidaia dohain izango da eta interesatuek Pol-Pol, Arrano edota Kortazar tabernan eman dezakete izena.

□ **Danborrada**

San Martinetako haurren danborradan parte hartzeko interesa dutenei uztailaren 6tik 17ra izena emateko epea zabalik egongo dela jakin arazten zaie. Bost urtetik 12 urterarte haurrek Kultur Etxean eman dezakete izena goizeko 9etatik ordubetetara.



Justo Garate beka

Andoni Larrañaga Kultur zinegotziak eta Rufina Olasagasti Kultur Jestoreak Udalak Justo Garate Arriola jakintsu bergararraren omenez sortutako ikerketa beka aurkeztu zuten atzo Pleno aretoan. Beka hau Euskal Herriko soziologia, historia edota euskal filolojiara zuzenduta dago, 11 hilabeteko iraupena izango du, euskaraz burutu beharko da eta diruzenbatekoa 935.000 pta.koa izango da.

Prentsaurrean jakitera eman zenez, beka norbanakoek zein lantaldeek

jaso ahal izango dute eta 35 urte baino gutxiagoko diplomatua edota maila bereko tituloduna izatea beharrezkoa da.

Interesatutakoek irailaren 1etik 30ra arte eskaerak egin ahal izango dituzte Udaleko Idazkaritzan, espediente akademikoa, *Curriculum vitae*, lanaren memoria eta nortasun agiriaren fotokopia bat aurkeztuz. Udalak argitalpen osoa edota zatikakoa egiteko eskubidea gordeko du eta beka emango ez balitz, hurrengo urterako bi beka egongo lirarteke.

□ **Institutua**

Batxilergo Institutuan 92/93 ikasturterako matrikula egiteko epea uztailaren 10era arte zabalik dago. 1.go mailakoek, dena gaintu dutenek eta bi ikasgai edo gutxiago utzi dituztenek ere egin dezakete matrikula.

□ **Salaketa**

Gobernu Batzordean ekainaren 17tik 18ra bitarteko gauean Udaletxeko, Aroztegi Etxeko lokalak, eta Vitoria eta Central bankuetako eta Aroa dendako zerrailak hondatuz, egindako ekintzak publikoki salatzea erabaki zen.

Bergarako Atletismoari

buruzko informazioa edota argazkiak dituztenei **BERRIGARA**-rarekin harremanetan jartzeko eskatzen diegu (76 03 97), horren historia argitaratzeko asmoa dugu ta.

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

MUGICA

Burdinaki denda

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA



Unzeta aurrera

Asteleheneko Plenoan Unzeta Ruiz de la Prada parkearen proiektua onartu zen EAJ, EE eta PSOeren aldeko eta HB eta EAren kontrako botoekin. Oposizioak salatu egin zuen parkearen erdian Ertzantzaren komisaldia egotea, Ertzantzak Unzeta Jauregia utzi beharko lukeela adieraziz.

Kutxari 400 milioiko kreditoa eskatzea ere onartu zen, HB eta EAren desadostasunarekin izan bazen ere. Dirua nora bideratuko zen ez zekitela eta Kutxari bakarrik es-

katzea ez zutela ulertzen esan zuten. Alkateak, berriz, Hazienda Batzordean gastuen berri eman dela eta aukera ezberdinak aztertu direla erantzun zien.

Bestalde, udal gobernu osatzen duten alderdiek atzera bota zuten Buesa Hezkuntza sailburua bere kargutik kentzeko eskatuz ikastolek aurkeztutako mozioa.

Azkenik aipatu azken 5 urtetan Herri Batasunako zinegotzia izan den Aitor Aginagaldek bere kargua utzi zuela astelehenean.

Txinpartak

✓ **Udaletxean** geratzen ziren zerbitzuak Irizar Jauregira pasa dira astean zehar.

✓ **San Kristobal** auzoko jaiak ospatuko dira datozen uztailaren 9, 10, 11 eta 12an. Ostegunean, hilak 9, gaueko 11etan ohizko pinuaren jartzearekin emango zaie hasiera.

✓ **Santa Marina** jaietako tanborradan (uztailak 19) parte hartu nahi duten haurrei astelehenean 7etan san Martin ikastetxean egingo den entsaiura joateko dei egiten zaie.

✓ **Antzuolako** Lizarraga auzoak ere San Martzial jaiak ospatzen ditu. Igande eguerdiko mezaren ondoren, txirrindulari igoera eta herriko dantzari eta trikitalari gazteen saioa izango da. Arratsaldean, Epelde anaiekin erromeria.

✓ **Udaltzaingoak** ekainaren 18an eta 19an *Euskal Bizikleta* zela eta, herritarren jokaera eta laguntza eskertu du, izandako trafikoko eta aparkaleku aldaketengatik barkamena eskatuz.

✓ **Carlos Galarraga** margolari bergararrak akzesita lortu zuen igandean Eibarren izandako margo txapelketan.

✓ **Arientza** idi-probalari angiozarrak Berangon jokaturako Idi-Proba Lehiaketa irabazi zuen pasa den astean.

BERGARA PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA

(Psikologia Gabinetea)

• **Zerbitzuak:** Aspaldiko urteetan:

- Kontsulta, diagnostikoa eta tratamendua (haur, gaztetxo eta helduentzat)
- Eskola atzerapenatarako laguntzak, ikastetxeentzako zerbitzuak.

• **Tratamendua:** Psikoterapia (urduritasuna, depresioak, stress-a, harreman-arazoak, enuresia (gauetan txiza egitea), psikomotrizitatea, logopedia (hizkuntzazko zailtasunak, ahotsezkoa, afasia, artikulazio arazoak, toteltasuna,...)

Herri-Lagunak (Aranzadi ikastolako patiotik sarrera)
Tfnoa: 76 14 80. Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

Asteazkenean eman zitzaien hasiera aurtengo Udaleku irekiei. Kikaundi Ludotekaren ardurapean, 3 urtetik 12 urtera bitarteko 220 haur inguruk, jolasean ematen dute goiza. Opor garaian, uztaila modurik dibertigarrienetan pasatzeko eskeintza ezin hobea...



urtegira irteerak egiteko asmoak badituzte, azokara erosketak egitera ere joango dira, Txapa Irratitik aurrez grabatutako elkarrizketa eta beste saio batzuk igorriko dituzte, eta hilaren 30ean, ostera, Udaleku irekiei bukaera emateko, jai berezia antolatuko dute dantzari, antzerki saio eta abarrak izango direlarik.

Kikaundi Ludotekak urtea lanean

Udaleku irekiak antolatzeaz gain, plazako Aranzadi Ikastolako gela batean kokatuta dagoen ludotekak, urtea eman du dagoeneko hurrekin lanean: *"lehenengo aldia izateko oso pozik gaude egindakoarekin. Gure lema, "heziketa jolasaren bitartez", indarrean jartzea lortu dugu eta gurekin izan ditugun 75 haur inguruk gustora pasatu dutela esan genezake"* esan digu Kikaundi Ludotekan lanean diharduten lau arduradunetako batek.

Kikaundi Ondasun Elkartek, eskolaurrean hasi eta OHoko 8. mailara arteko neska-mutikoen astialdiak alaitzeko sortutakoak, elkarte pribatu gisa lan egiten du. Hala ere, udalaren dirulaguntza jaso eta Aranzadi Ikastolako gela batean kokatuta dago.

Udaleku irekiak martxan

Azken bost urteetan egin ohi den bezala, aurtengo ere uztailaren ailegarekin Udaleku irekiak antolatu dira Bergaran. Aurreneko hiru urteak Udaleku Euskara Batzordeak antolatu bazituen ere, iaiztik Kikaundi Elkartearen ardurapean egiten dira.

Aurten 220 neska-mutikok hartzen dute parte, bi taldetan banatuta: 3 urtetik 6 urtera bitartekoentzat bat eta 7tik 12 urtera bitartekoentzat beste: *"adinaren arabera iharduera ezberdinak antolatu nahi izan ditu-*

gu eta horregatik osatu ditugu bi talde" esan digu Kikaundi Elkarteko ordezkari batek. Haur tropela zaintzen 23 begirale eta 2 koordinatzaile arituko dira.

Hainbat jolas iharduera kalean eta mendian burutuko badituzte ere, Boni Laskurain kalean dagoen Aranzadi Ikastolan eta San Martin Ikastetxe Publikoan antolatuko dituzte gehienak.

Era guztietako iharduerak

Astelehenetik ostira-

lera bitartean, goizeko 10etan hasi eta eguerdiko ordu bata arte, eskulana, mendira eta igerilekuetara irteerak, argazki eta eskalada ikastaroak eta abar luze bat antolatu dituzte.

Ekintza bereziak

Noizbehinka iharduera bereziak ere egingo dituzte. Hala nola: datorren asteartean, hilak 7, San Ferminen omenez, txupinazoa, kalejira eta herri jolasak; San Martzialera edota Usakoko

ORTZI Erretegia
ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

ONENA TINDATEGIA
Barrenkale 29, BERGARA

ZINEA



DETECTIVE CON MEDIAS DE SEDA

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30
eta 22.30.
Astelehena: 19.30.

▼▼ Nobela poliziakoaren protagonismoa gizonaekoen gauza dela pentsatzen duenak jai dauka. **Kathleen Turner**rek argi uzten du emakume batek detektibe ausartienaren lanak ere egin ditzakela eta ez du etsiko sekula ere. Suspensea, akzioa eta Warshawsky anderearen "amabilezia" zihurtaturik daude.

DEIAK

• **1.937ko kintoen** anaiarteko eguna igandean, hilak 5. Ordubatetan meza eta ondoren bazkaria Lasa Jate-txean.

KONTZERTUAK

• **Julio Kageta, Banana Boat eta Zakarra**, larunbatean 23.00etan Elgetan.

• **Ibaiak** taldearen emanaldia larunbatean gaueko 11tan Espoloi-an.

FARMAZIAK

- **Larunbata 4:** Camacho.
- **Igandea 5:** Camacho.
- **Astelehena 6:** Puy.
- **Asteartea 7:** Guallar.
- **Asteazkena 8:** Estella.
- **Osteguna 9:** Mozos.
- **Ostirala 10:** Camacho.

OGIA

- **Igandea 5:** Bolintxo

AUKERAN



▼▼ **Bergarako Orfeoia**k kontzertua eskeiniko du ostiralean, hilak 3, gaueko 10etan Seminarioko elizan. Cristina Larrañagaren zuzendaritzapean, Orfeoia, besteak beste, Bach, Morricone, Verdi, Mozart, Aita Donostia, Miguel Glez. Bastida edota Esnaolaren piezak abestuko ditu.

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

ETXAGI Jafetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

San Martzial


Erljio edo ohikunde paganoen arrastuak agian (II)

San Martzialen ohitura zaharrak mantendu egin dira. Neroni ere maiatzean urtero joan izandu nintzan ermitara meza ematera eta urte hartan zegokion maiordomuarekin "Goiko-gañera" igo ondoren, urki baten ondoan konjuro bat erreztzera. Han zeuden zuhaitz batean zulaturik urte askotan egindako konjuruengurutzetxoak.

XVII garren gizaldian Bergarako Udaletxeak 500 marabedi eman zizkion Santamañako apaiz taldeari herriko mugetako konjuruengatik. eta orduan hemen egongo ziren, Goiko-gañian Bergara eta Elgeta bitarteko mugak. Toki honetatik jeisterakoan, mendiko bizkarrari eusten, eta Zu-

pideko baserriaren gain aldera etortzerakoan, beste konjuro bat erreztzen zen estalitako hutsune baten ondoan; zurzko gurutze bat ere bazegoen. Hau zulo bat zen aurretik, agian.

Lehen esaten omen zuten, garai batean Lapatzarako bidea ez zela Askatzutik, eta ermitaren inguruko kanpa zabalagoa zela. Kanparen azpian zihuan errekatxo batek pixkanaka-pixkanaka zabaldua jan egin omen zuen eta oraingo hutsunea sortu. Dena dela hango urak bertan desegiten direla dirudi, eta ermitaren inguruetan leize edo zulo asko daude, miatzaileak horietakoren batean jeisten dira, oso luzea omen dela diote, Deba ibairañokoa agian, eta aurreko



zaharrak diotenez leize bat Agorrosingo baserriko sukaldearekin loturik omen dago.

Oraintsu arte San Martzial iturrira jende asko joaten zen "isipula" gaitzetik sendatzeko asmoarekin. Olioia, kandela eta limosna bat eramaten zituzten. Ermitan kriseiluko olioarekin gaixotutako zatia igurtzi eta San Martzial iturrian garbitzen zeninguru guztia zikindutako zapiz betea egoten zen. Aranaz eta Iantzi bitartean ere, Nafarroan, badago antzerako San Juan iturri bat. Ermita ba-

tzuk ohikunde eta erlijio paganoak zeuden iturri inguruetan altxatuak izan dira.


San Martzial eguneko jaia asko zaindu behar litzateke. Oso aberatsa etorri zaigu aurreko gizaldietatik: Erregeak, zahagia gurdian egintarien aurretik, eta abar. Caro Barojak berak antzekoez idatzi izan du. Zenbait herritan zenbait jai, propaganda eta gutzi, mantentzen diren modura: ikerketak egin, mantendu eta bizi.

Imanol Sorondo

anezka

Udazkenerako oihalak eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

OILAGORRA
Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

• Frigorifiko kamioi autonomoa behar da, astero Bergaratik Ponferradara gehienez ere 1.000 kiloko kargarekin bidaia egiteko

LAN ESKEINTZA

• 1. mailako karneta duen txoferra hartuko litzateke bere kontura lan egiten duena eta esperintziaduna.

• Frigorifiko kamioi autonomoa behar da, astero Bergaratik Zaragoza 1.000 eta 2.000 kilo arteko pisuarekin bi bidai egiteko. Bidaia aseguratua.

Baserriko mutil ezkongaiia, aita-amak, oinordetutzen zuten, familiako semerik zaharrena normalki, eta bera jabetzen zen baserriak jarraitu zezan osasun osoz, zatitu gabe. Ondorengo senideak, kalteordainekin berdindu nahi izaten zuten, hizkimizki ugari sortzen baziren ere. Garbi dagoena gaur, ohitura horrerik esker, gure baserriek zatiketarik ez zutela ezagutu.

Emakume ezkongaiari berriz, ez zitzaion eskatzen inolako baldintza berezirik, bere ezkontzarako.


Neska-mutilak, elkartzeko bat etortzen zirenean, ezteia ospakizuna berehala gertatzen zen. Erretore jaunaren baimena zutenean, gizezkoari zegokion parrokiari, goizeko lehen orduetan egiten zen ezkontz-elizkizuna. Eragin hau bukatzerako, neskaren gurasoak eskeinitako arrea, idi pareari lotutako gurdi gunean gertu egoten zen, etxerunzko ibilketari hasera ematerakoan. Arreoko tresnak: ohe osatua eta komoda bat, normalean. Hobeto hornituak be, ikusi ohi ziren.

Idi pareak, garbi eta dotore prestatua, euren begizamar eta buruko ardinarrua ongi apaindurik. Gurdia, oso-osorik, zurzkoa zen, ardatz eta gaineko gurdiohea bezalaxe. Olioaren orde, erretxinarekin igurtzitzen zituzten ardatz bazterrak, irrintzirik biziena atera zezaten. Horrela, bidaietan zehar, gurdi ardatzaren irrintzia, trikitilari eta pandero jotzaileen soinu, "etxafuego" jaurtitzaila eta ezkonlagunen oihuak alaitzen

**Aintzinan, gure
baserrietan egiten
ziren ezkontza
jaien ospakizunak
aipatuko
ditut jarraian.**

Bildu dudan sortatxotik...

AIN'TZINAKO EZKONTZAK



Antonio URZELAI

zituzten inguruko errekarro eta mendibizkar guztiak. Etxera heldutzean, aita-amak eta beste sendiak, ezkon berriei zorianak emateko prest.

Txala hiltzen zuten janaritzat, oinarri bezala, baina oilasko eta arraultz ugari ere kontsumitzen ziren. Sukaldaritzarako, kanpoko emakumea ekartzen zuten arduradun, kritikarik egon ez zedin... Bazkaria, etxeko atarian edo sala nagusian zabaltzen zen eta ez zen jasotzen jangaiak bukatu arte. Tarteko denborak, trikitilariak osatzen zuten dantzatzaileen jostaldia betetzeko. Ohitura zenez, auzoko mutil gazteak hurbiltzen ziren jai bukaerara. Talde honek, "Errondalariak" deitzen zioten. "Abemariakoa" entzuten zenean bukatzen zen baserrietako ezteia. Ezkon berriak, ez zuten aukerarik bidaietarako eta beste sendiak lez, etxean gelditzen ziren lotan.

Hala ere, nire sortatxoan agertu zait anekdota hau, ezkonberriei bidaietan gertatua.

Bilbotik Donostiara zihoan trenean, heldu ziren Amarako geltokira. Zaldi biko karri-kotxea alokatu ondoren, bazihotzen hotelera, kalez-kale. Une batez hutsegina haundiz, emakumeak jaurti zuen barrutik deihadar larri hauxe: E, hortik ez!

Kotxeroak gelditu zituen aurrean zeuzkan zaldiak eta jaitzen peskantetik. Irtetzeko agindu zieten ezkonberriei ibilgailutik, esanez: "Berrogei urte daramatzat hemen kotxero eta zuek ez didazue erakutsiko nondik-nora ibili behar dudan Donostian".

LARREA

TABERNA

**Kale Barren 17
ANTZUOLA**

GOIERRI

Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA


Alex Garitano eta Josetxo Zabaleta, Bergara K.E.ko presidente eta diruzainarekin:

"Datorren urtean preferente mailan bost lehenengoen artean ibiltzea espero dugu"

Juan Luis Arregi, orain arte Bergarako futbol talde nagusiaren entrenatzailea izandakoaren zeseak berba eta komentario ugari sortarazi ditu. Joan zen astean Berrigarako orrietan erabaki horrek elkarteko zenbait kiderengan sortu duen haserrearen berri ematen genizuen. Oraingo honetan, Bergara K.E. zuzentzen duten presidente eta diruzainaren eritzia azaltzen dizkizuegu.

-Presupuestoa murriztu nahi duzuela entzun dugu, elkarteko sail ezberdinei diru gutxiago eman nahi diezuela, futbolera gehiago bideratzeko...

- Hori ez da horrela. Datorren denboraldira begira, saskibaloia presuponestoa, esaterako, izugarri haunditu da talde nagusia hirugarren maila nazionalean ibiliko da eta. Sail bakoitzean kanpoan jokatzeko diren partiduek suposatzen duten gastuak murriztu nahi ditugu, beste alor batzuetan



ra bideratzeko. Adibide bat jartzeagatik: sail ezberdinetako taldeei ez zaie arropa dotoreak (txandalak, kamisetak...) faltako, baina kanpoko partiduetara bidaiak sail bakoitzetako guraso edota lagunen poltsikoetatik ordaindu ditzatela nahi dugu. Batzbestea eta joan zen urteko presupuestoekin konparatuz, ez da sail ezberdinetan murrizketarik egongo. Hala ere garbi utzi nahi dugu hau gurea futbol elkartea dela eta garrantzi gehien futbolari ematen diogula.

- Noiz, nola eta zergatik hartu zenuten Arregi kargutik botatzeko erabakia?

- Ez dugu Arregi kar-

gutik bota, ez diogu kontratua berriztu. Juan Luisek urtebeteko kontratua zuen eta amaitu zaionean ez diogu berriztu, datorren urterako egokia ez zaigulako iruditzen.

- Hala ere, orain dela hilabete inguru karguan jarraituko zuela esan zenioten...

- Ez da guztiz egia. Denboraldi hasieran asmo hori geneukan, alegia, preferentzera erraz igo eta hurrengo urtean Arregirekin jarraitu, baina gure nahiak ez dira bete eta azken momentura arte ez dugu mailaz igotzea lortu. Gainera, taldean egin dugun inbertsioari errentagarritasuna ez zaiola atera uste dugu.

Gauzak horrela, Lazkaoaren aurka jokatu aurretik entrenatzaile aldatzea erabakita geneukan. Baina urtean zehar erabakia hartzera bultzatu gaituen hainbat ezbehar gertatu dira. Arregik, berak, kargua gure eskuetan utzi zuen denboraldiaren erdialdean...

- Kontuak kontu, Juan Luis kargutik kanpo lagatzeko erabakia zuek biona izan da eta ez Zuzendari Batzorde osoarena...

- Bai, baina esan dezakegu hartutako erabakia direktiba osatzen duten gehienek onartu dutela.

- Tito Prieto, datorren urtean entrenatzaile izan daitezkeen

artean dagoena, Lazkaoren aurka jokatu-tako azken partiduan Agorrosinen egon zen. Ez dirudi jokabide zuzenegia urte osoan talde nagusiko zuzendari izan denarekiko...

- Esan dugu lehen, erabakia aurretik hartuta geneukala, baina noski, mailaz igotzea jokoan zegoenean ez genion esango Arregiri datorren urtean ez zuela jarraituko. Horrek gauzak okertu baino ez zituzkeen egingo.

- Gataz aldatuz, datorren urtean preferenteko talderik onentsuenen artean egotea duzue helburu eta kanpotik jokalaririk berriak ekartzeko asmatan zabilzate. Horrek ez al du azken urteetako politika bausten?

- Aurten Pelaio, Victor, Carabias, Mendoza eta Gomez de Segura izan dira kanpokoa eta azken urteetan ere, bospasei izan dira. Datorren urtera begira, bide berdina jarraitu nahi dugu. Asmoa harrobia lantzea da, horretarako 2. mailako ju-



benila sortuko dugu eta bestalde, aurten aritu diren jokalaririk asko ez ditugu datorren urtean izango eta lauzpabost berri fitxatu nahi ditugu. Iaz Carabiasek, 15.000 pezeta hilean, eta batez ere Gomez de Segurak, 500.000 urte osoan, kobratu bazuten ere, aurten ekarriko ditugunak merkeago fitxatu nahi ditugu. Merkeak baina onak, kalitatezko jokalaririk ekarri nahi ditugu talde sendoa osatzeko eta preferente mailan bost lehenengoan artean ibiltzeko.

- **Kanpokoei or-**

dainduz gero, bertakoekin gauza bera egin beharko duzue...

- Asmoa, ahal izanez gero, ezeren truke fitxatzea da baina kanpokoei ordaintzen bazaie bertakoei ere ordainduko zaie. Hala ere argi esan behar dugu iaz 2.500 pezeta eman zaiela puntu bakoitzeko, prima bezala eta fitxaririk kobratu ez arren, inguruko taldeak baino gehiago eman zaie sari modura. Elgoibarrek, esaterako, Bigarren Maila B-ra igotzea lortu du aurten eta jokalariek ez dute hemen beste irabazi puntu bakoitzeko.

Fitxajeen dantza

Denboraldia amaitu berri, hurrengora begira taldea prestatzen burubelarri ari dira Alex Garitano eta Josetxo Zabaleta.

Lehendabizi egin beharrekoa, entrenatzailea topatzea da: azken egunetan, eta Arregiren zesearen berri izan dugunetik batez ere, Tito Prietoren izena askoren ahotan entzun dugu. Lasartearrak Beasain hirugarren mailara igo zuen. Baina Alex Garitano presidentek, berak, Prieto ez dela Bergarara etorriko esan digu eta kanpoko lau entrenatzailearen artean erabakiko dute.

Jokalariei dagokionez, aurten aritu diren Pelaio, Txomin, Paul, Guisado, Gomez de Segura, Luceño, Ibarra eta besteren batek ez dute jarraituko eta kanpoko bost ekarri nahi dira (Bigarren B Mailan aritu den batenbat etorri daiteke). Ramon Agirrezabal fitxatu nahi izan dute baina honen ezetza eman die.

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LARRAÑAGA eta ZUBIA Banatzaileak


Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak
Martokua 32, tfnoa: 764594

CAMACHO DROGERIA USAINDEGIA

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



GAZTELV S.A. Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



ETXE AUNDI

Negozio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS

oto istema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

I
Z
O
Z
K
I
A
K

I
Z
A
R
H
O
T
Z

I
Z
O
Z
K
I
A
K


Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

Igandean San Martzialera ala Tourra ikustera?




Lucia Peña
78 urte, etxekoandrea

Ez bata ezta bestea ere. San Martzialera joateko zahartuta gaude eta tourra ez dut ententitzen.



Igor Altuna
22 urte, ikaslea

Duda barik Tourra ikustera. Astebukaera Donostian pasatuko dut. Tourra Tourra da.



Andoni Izagirre
28 urte, ikaslea

Donostiara joango naiz Tourra ikustera.



Nerea Azkarate
14 urte, ikaslea

San Martzialera joango naiz lagunekin eguna pasatzera.



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio eskola honek zera jakin arazten du:
1992-93 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela.


ESPEZIALITATEAK:

- Haur-eskola
- Euskal filologia
- Ingeles filologia

BIGARREN DIPLOMATURAK:

- Haur-eskola
- Ingeles filologia

Informazioa: **IRAKASLE ESKOLA**. Tfnoa: 79 04 40
Ordutegia: 9-13



Tourra Euskadin

Tourra munduko ikuskizun haundienetakoetan koka dezakegu, batez ere duen koloretasun ikusgarriagatik.

Kaleetatik eta beste hainbat lekutatik ia 1.000 ibilgailurekin eta 3.000 pertsona baino gehiagorekin pasatzen den ikuskizun honek sortzen duen mugimendua izugarria da.


Eta antolaketa barruan egonda, kasu honetan, Indurainek 1 zenbakidun dortsala daramala ikusiz eta lorpen hori errepikatzekeko posibilitateak dituela, sentitzen dudana adierazteak oso zabal joko luke; honi gorabehera politikoaren gainean daramadan negozioaren gaia gehituz gero, lau egun beharko nituzke dena azaltzeko.

Dena dela aipatuko nuke, HBk Tourraren inguruan egindako eskaerei erantzuten saiatu garela eta gure helburua, inor irabazle eta galtzaile irten gabe arazoei irtenbidea aurkitzea izan dela. Lortu dugula uste dut.

Lan puntual batzuetan izan ezik, Ertzantzak eramango du Tourra Euskal Herrian dagoen bitartean, trafikoari eta beste arazoei buruzko ardurak guztia. Hau lortzea ez da erraza izan, Ertzantza Donostian oraindik ez delako desplegatatu. Oraindik gairen bat zintzilik geratzen bazaigu ere, larunbaterako guztiak konpontzea espero dugu.

Bestelakoan, Tourrerako neure faboritoen zerrenda, ordena honetan egingo nuke: Indurain, Lemond, Bugno eta Leblanc.

Iñaki Lete



Gauza serioa

Berrigarak, bere azken zenbakian, asteko berriak ematerakoan hauxe zioen:

"Elosuko Otaba jaietan giro izugarria...", "inoiz baino jende gehiago".

Elosuar batek, Otaba igande eguerdian auzoko tabernan honela zioen: "ze jende gutxi etorri dan". Gauzak, ikusten denez, denok ez ditugu berdin ikusten.


Urtebete darama Elosuk "alkate arazoa" konpondu ezinikan. Auzoak ez du nahi Bergarako Udalaren erabakia; Udalak dio berak jarritako alkateak eginkizunak ondo betetzen dituela.

Eta Elosun gertatzen ari diren gauzak ikusita, ezin inolaz ere onartu auzo eta Udalaren arteko harremanak onak direnik, ezta ere bertara iristen den informazioa egiazkoa denik...

Nork bidali ditu Elosura udaltzainak herriko aparejadore ta guzt Elizondoko obrak geldituz araztera? Nork esan du baimenik gabe ari direla? Aurreko Udalak ez al du ba laguntza eman hori egiteko? Ez al daude Udaletxean baimenaren agiriak? Nork bidali ditu udaltzainak iturri berria non egiten ari diren galdetzerara? Harri batzuk iturri ondoan jartzea nahikoa al da pentsatzeko iturri berria egin behar dela?...

Elosuko jaietako propaganda ikusi bezain azkar, batek honela esan zuen: "hau gauza serioa da". EElosukin egiten ari zaretena gauza serioa da.

Xabier Zubizarreta



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69



GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

**JUBILATUEN
TABERNA**

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



TOSHARE

ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko boteliatokia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65



1.950eko kintoen eguna

Igandean 1.950.eko kintoek (1.929an jaiotakoak) beren anaiarteko eguna ospatu zuten. San Pedron hildakoen omenezko meza entzun eta ondoren bildutako 25 gizonen bazkaria egin zuten Lasa Jatetxean. Honelakoetan gertatzen den bezala, kontu ugari, bazkari ederra eta lagunartean ondo baino hobeto. Eta ohiturak agintzen duen bezala, datorren urtean egun berezi hau errepikatzeke asmoz. Ez ala?

Dantzan

Haurren Euskal Jaiaren

XIX. edizioa ospatu zen gure herrian igandean. Hego Euskal Herriko lau probintzietatik etorritako 8 taldek hartu zuten parte eta, guztira, 300 bat dantzari izan genituen herriko kaleak alaituz beren dantza eta musikarekin. Hala ere, herritarren erantzuna ez zen beste urtetan bezalakoa izan. Itxura, eguraldi ona aprobetxatuz, dantzarako baino eguzkitan egoteko gogoia zuen jendeak...



Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

AGIRREBEÑA

**Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria**

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



□ **Datozen figurak**

Amaitu berri den benjamin eta alebinentzako futbol txapelketaren sari banaketa egin zen joan den igandean. Guztira alebinetan 5 eta benjaminetan 2 taldek hartu dute parte. Alebinetan **Bergara** nagusitu da bigarren **Mariaren Lagundia** geratuz. Benjaminetan, berriz, **Jotapurtu** taldea **San Martinen** aurretik izan dugu. Argazkian antolatzaileak eta laister Agorrosinen golak sartzen ikusiko ditugun zenbait jokalarik.



□ **Ikasle onak, musiko bikainak**

Astehenean **Musika Eskolako** ikasleek ikasturte amaierako kontzertua eskeini zuten Zabalotegiako aretoan. Han bildu ziren guraso, irakasle, zaletu eta ikasleek ere akordeoi, piano, saxo, txirula, oboe etabarretik zetozen doinuekin disfrutatu zuten. Ikasleek urtean zehar ikasitakoa ezagutzera eman eta, bide batez, jendearen txaloak jaso zituzten bere lanaren errekonozimendu gisa. Irakasleetatik hasita, denak gustora!!


Zertan dibardute ba?

IÑIGO GARITANO



Zuzenbidean lizentziatutako 26 urteko bergarar hau Antzuolako Udaletxeko behin behineko idazkaria dugu. Momentuz, Iñigok lehiaketa publikora atera arte beteko du lanpostua.

BERGARAR GIDARIAK



Iban Rodriguezek astebukeraren Montmelon jokaturako *Clio Iniciación* Txapelketaren proban garaipena lortzen zuen bitartean, Pablo Irizarrek ere laisterketa bikaina burutu zuen, 2. geratuz 16 balbuletako Clioen proban.

Garnish

BEHERAPENAK: %30

Bitxitegia, boltsak, gerrikoak,...

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

URRATS
Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

Umore giroan

Orrixekin tapauta

"Tiro pitxoian txapel-dun izan zan Bitxor Sarasketa gaztiak konbidau zebazen Felix Legarre eta Kaporala txikito batzuk artzera. Bitxorrek esaten detsa:

- Akordatzen zara, Felix, kazara batera jauten giñanian?

- Bai, nik, tirua-tiro, zozuak magal ta guzti botatzen najitxuan?

Orduan urten zeban Kaporalak:

- Ala izango zuan. Orrixekin tapauta geratuko zitxuan zozuak, sekula ez zeban ezer ekartzten beintzat.



gaiñera, Felixek ollar bat zaroian eskuetan. Eta medikuak:

- Ba oia Felix, eure olluakin...

Felixek, arritxuta:

- Olluakin? Mediku argixak jaukauz! Ollua eta oillarra distingitzen ez dakixanak. zelan jakingo jok estula ala pulmonixia dan?

Pedro Zelaia

Mediku kaskarra

Mediku batekin egin dau tope Felixek Kalbetoi kalia. Momentu aretan,

Antzinako kontuak

Ondarza Etxea

Ondarza etxea, hiribilduko ormen ondo-ondoan eta Arrabal kalean kokatua (gaurko Bidekurutzeta kalean), Andres Martínez de Ondarza Gomendatorearen aginduz eraiki zen XVI. mendearen hasieran; geroago, haundia-gotua izan zen Olaso dorrerako norabidez, eta honek bide eman zion Miguel José de Olaso jaunari 1.728an obra horien aurka ager zedin.

Hasiera batean eraikuntza koadrangeluarra zen eskaraguitez errematatua angeluetan, elementu sinboliko hori hiri barruan agertzen den lehendabiziko aldia izanik. Fatxada nagusia, atikoa izan ezik, harlanduz egina da, alboetakoak, goikaldea pobregoa dutelarik, harlangaitzezkoak diren bitartean. Gaurregun baoen banaketa oso eraldatuta aurkitzen da eta alboetakoak bereziki; hemen zenbait leiho konopial txiki aprobeztatu dira eta ertaroko harburuekin batera barroko garaiko ur-isurleak agertzen baoen gainean.

Fatxada nagusia dugu azpimarratu beharrekoa; honetan, eta beheko pisuan, bi arku bizki irekitzen dira, zorrotz samarrak eta oso ederrak biak, intradosera doan ertzean nazela eraikusten duen dabelaia trinkoa dutenak; albanegetan familia harmarria ageri da eta bere gainean eta altuera haundia-goan, inperioko harmarria bi buruko arranoa erakutsiz, etxea eraiki zuena enperadorearen zerbitzari izatearen adierazgarri. Pisu bakoitzak lau bao aurkezten ditu, oso eraberrituak, eta nagusia eta hurrengoaren artean moldura xume batek orma erditmatzen laguntzen du. XVIII. mendeari dagokion joritasunez tailaturiko zurezko egarbe eder eta irtendun batek ematen dio errematea multzoari, Rocaverde Markesaren etxean dagoenaren berdina-berdina delarik.

M. J. Aranburu eta
J. Gil Masa



Gizon Emakume
Barrenkale 35 Irala 2
BERGARA



76 20 61

BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46
Bergara

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

P. MANSO
Optika
OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

ARGAZKI

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

Iñaki Agirre

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen:
Zortzi ladrilozko tximinia daude Bergarako Labegaraietan,
bat untzez erdi estalita.

IÑAKI AGIRREK irabazi du **ASKASIBAR** jatetxeak
emandako SARIA.

ZORIONAK irabazleari!!

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako
galderari!

Urcelay
HARATEGIA

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**


**Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77


Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



Iñaki Agirrek jaso du aste honetan
ASKASIBAR jatetxeak emandako
saria.




Hurrengo Galde Debaldeko saria
ARGAZKIk emango du.


Galde Debalde

Aste honetako galdera:

San Pedro-San Martzialak ospe haundiko jaiak dira Bergaran aspaldidanik. Bergara Ariznoa bakarrik zeneko garai haietatik Ariznoako San Pedroren sinboloa dago harmarran. Hau da beraz galdera:

San Pedroren zein ikur edo sinbolo dago Bergarako harmarran?





Izena _____ **Abizena** _____ **Tfnoa:** _____

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Kirol aukera zabala martxan jarri den Uda Kanpaina 92an

□ Olinpiadak

Hamabost bat kuadrilek hartuko dute parte astelehenean hasiko diren II. Olinpiada Herrikoietan. Aurrekoetan bezala kirol ezberdinetako probak jokatu dira uztailearen 25era arte eta bazkari herriko batekin emango zaie amaiera.


□ Ziklismoa

Lokatza lehenengo urteko jubenilen taldeak 12. postua lortu zuen larunbatean taldekako erlojuaren aurkako Gipuzkoako Txapelketan. Bestalde, Iberdrola taldeko Aritz Garaialdek irabazi zuen larunbatean Bergaran jokatuak kadete mailako II. San Martzial Saria.

Astelehenean eman zitzaion hasiera Udako Kirol Zerbitzuak antolatutako Uda Kanpainari. Aurten ere kirol eskeintza oso zabala prestatu da eta denetarik dagoela esan daiteke: tenisa, igeriketa, *raftinga*, mendiko bizikleta... etab. luze bat.

Bi txanda

Kirolak Bergaran eta Bergaratik kanpo ere egingo dira. Herrian jokatu beharrekoak bi txandetan banatu dira: ekainaren 29tik uztailearen 10era arte lehena eta uztailearen 13tik 24ra bigarrena. Herritik kanpo iharduerak, berriz, fetxa eta modu ezberdinetan egiteko aukera egongo da, bai uztailean eta baita abuztuan ere.



Aukera zabal horretatik *raftinga*, kainoi jeitsiera, piraguismoa edota parapentea bezalako iharduerak destakutzen dute: lehen biak egun bateko iharduerak izango dira eta, parapentea eta piraguismoari dagokienez 5 eta 4 eguneko ikastaroak egongo dira. Ināki

Ugarteburu Kirol Zerbitzuko arduradunaren esanetan, "*helburua kirol berriak jende guztiari ezagutzera ematea litzateke*". Bazkideek beharpenak izango dituzte eta izena eman edota argide gehiagoren bila Kirol Zerbitzura jo dezazkeuz.




Eskalada txapelketa

Azken bi urtetan bezala, larunbatean Euskadiko Kirol Eskalada Txapelketa jokatu da gure herrian. Udako Kirol Zerbitzuak eta Pol-Polek antolatuta, Euskal Herri osotik etorritako 50 bat partaide izatea espero da, tartean Patxi Arozena eta Beatriz Jimenez iazko txapeldunak. Probak goizeko 10etan hasiko dira Kiroldegian (izen-ematea ordubete lehenago itxiko da) eta arratsalderako sailkapena lortzen dutenek 5etan jokatu dute finala Plazan. Sariak dagokienez, emakume zein gizonezkoen kategorian, lehen laurek 40.000, 30.000, 20.000 eta 10.000 pt.a.ko sariak jasoko dituzte.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

IRUBIDE
Taberna

Bazkariak, gosariak,
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67



Enseñantzako kuadrila San Martzialen (1.960)

Berrehundik gora mahai eskatu dituzte bergararrek aurten San Martzial egunerako. Antzina ez zen mahairik izaten. Jendeak lurrean eserita egiten zuen bazkaria. Zenbaitek goizean joan, eguerdian bazkaltzera etxera bueltatu eta gero arratsaldean berriz joan ere bai.

Baina gainontzeko jaia gaur bezain haundia izaten zen eta bergarar guztien esertoki izaten zen egun horretan San Martzialgo ermita ingurua.

Argazki honetan agertzen direnek ere ("Enseñantza"ko 4. graduok) toki huraxe aukeratu zuten eskolak amaitu ondoren (orduan 14 urterekin amaitzen zitzaizkien gehienei eskolak) elkarrekin egun eder bat pasatzeko. 1.960. urtea zen.

Hara zeintzu diren eurok, ezkerretik eskumara:

Azkenengo ilaran: Cristina Lopez de Abetxuko, Arantza Gantxegi, Milagros Inziarte, Loli Ruiz de Egino, eta Guadalupe Lopez de Abetxuko.

Erdian: Begoña Basabe, Itziar Ezpeleta, Rosa Mari Lazkano eta Begoña Barrena.

Aurrean: Mari Isabel Okina, Adela Villar, Mari Pilar Madariaga, Elvira Boizas, Arantza Ugalde, Maribel Gantxegi, Milagros Arrieta eta Mari Karmen Iñarra.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Mari Isabel Okina*



Gaspar
Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a

Barrenkale 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

DENA 100
pzta.tan
Ireki berria
SIMON ARRIETA 3an

ETXEBIZITZA

Etxebizitza salgai Arzamendi 19an. 3 gela, saloia, sukaldea eta bi bainugela. Amueblatua eta gasaren instalazioa eginda. ☎ 76 10 10.

Pisua salgai Bidekuru-tzetan. (5.000.000) ☎ 76 09 36.

Pisua salgai Donostian (Amaran). Sukaldea, 2 gela, saloia eta bainu gela. ☎ 45 81 56 (eguerdian)

Bi apartamentu alokatzen ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Apartamentua alokatzen da (garaje eta guzti) **Jakan.** ☎ 76 43 98.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Pisua salgai: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

SALDU-EROSI

Mendiko bizikletaren XT.92 freno beltzak salgai. ☎ 76 52 31 (gauez).

Ecler Mac 2 markako musika nahasketarako mahaia salgai (2 lerro eta 4 plater). ☎ 76 38 61.

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak teklista bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

2 CV aren erroberak salgai (oso merke). ☎ 76 15 07 (Aniozt).

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Minox CT argazkikamara, flash eta guzti, salgai. Berri-berria. ☎ 76 52 31.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Seter txakurkumak salgai ☎ 76 35 01 (gauez).

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

PCrako joku ugari salgai. Oso merke!! ☎ 76 17 85 (Asier).

6-10 urteko haur batentzat mendiko bizikleta salgai (BH marka). ☎ 76 56 97.

Elektragailuak (garbigailua, hozgailua...) **erosiko nituzke** ☎ 76 17 85.

LANA

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Taberna alokatzen da ☎ 76 53 73.

Arratsaldetan galxoak eta edadetuak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

Bajua jotzen ikasteko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 17 85.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

Mutil batek kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. marraztuko lituzke ☎ 76 25 59.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Hildakoak

Valeriana Moñux Angulo
uztailaren 1ean, 83 urte

Jaiotakoak

Xabier Berasategi Lonbide
ekainaren 25ean
Aintzane Olabarria Rodrigo
ekainaren 27an
Nabia Cotillas Solaun
ekainaren 28an

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak
Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara!!

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75



**T
B
E
R
N
A**

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA



**TEMPRA
STADIO**

1.535.000 pzta
Matrikulatuta

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA